



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas



GASTEIZEN BIDEZKO MERKATARITZA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEKO URTEZ URTEKO HITZARMENA, 2026. URTERAKO

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainarten 8an.

2024ko otsailaren 9an, Gasteizko Udalak eta Zentzuz sareak —SETEM Hego Haizeak, Arabako Medicus Mundik eta Elizbarrutietako Misionak (Bide Bidean) osatzen dute— jarduteko protokolo orokorra sinatu zuten bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko, zeina 2027ko abenduaren 31ra arte izango baita indarrean. Aipatutako protokoloko seigarren eta zazpigarren klausulei jarraituz, 2026ko hitzarmen hau adostu zuten alde guztiek, Tokiko Gobernu Batzarrak onartua 2026ko ekainaren 5ean.

KLAUSULAK

LEHENA: DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntza izendunaren hitzarmen hau jasota dago indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027).

Helburu hau lortu nahi da hitzarmenaren bidez: “Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua hedatzea, GGKEak indartzea eta Saharako haurrak aldi baterako hartzeko jardueri laguntzea”.

BIGARRENA: HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Gasteizen bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko zenbait ekintza garatzea, ikuspegi nazioarteko/global batetik, bereziki alderdi hauek aintzat hartuz: giza eskubideen eta lan-eskubideen errespetua ondasunak eta zerbitzuak ekoitzi eta merkaturatzean, ekoizpen-sistema ekonomiko globalizatuak Hegoaldeko herrialdeetan dituen gizarte- eta ingurumen-inpaktuak, eta planetaren jasangarritasuna.

HIRUGARRENA: SAREAREN ORDEZKARIA

Jarduera-protokolo orokorraren hamargarren klausulan ekintzen erantzukizunari buruzko xedatzen denez, urteko hitzarmen honek ezartzen du Medicus Mundi Álava/Arabak arituko dela Zentzuz sarearen buru 2026ean, eta, beraz, sarearen ordezkari izango dela Gasteizko Udalaren aurrean. Zentzuz sarea osatzen duten



erakundeen eta Gasteizko Udalaren arteko jarduera-protokolo orokorra erantsi zaio hitzarmen honi, alderdi loteslea baita.

LAUGARRENA: GARATUKO DIREN EKINTZAK

Hitzarmenaren barruan jarduera hauek egingo dira:

Herritarren artean bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeari dagokionez:

Ildo tematiko horren bitartez, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-mailan herrialde pobretuen direnetan gure kontsumo-ohiturek duten eraginarekin lotutako hainbat alderditan jarriko da arreta, gasteiztarrei bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua benetako eta hurbileko alternatiba gisa eskainiz.

Horretarako, ekintza zehatz hauek garatuko dira:

- **Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna.** Gasteizek bat egingo du maiatzaren bigarren larunbatean ospatu ohi den Bidezko Merkataritzaren Mundu Egunaren ospakizunekin, aurten maiatzaren 10aren inguruan egingo den programazioarekin. Programazioa hitzarmen honen eranskineko fitxan zehazten da, eta honako ekintza hauek nabarmentzen dira:
 - o Maiatzaren 8an, osteguna, **Bidezko Merkataritzako Kafearen Egunaren** hirugarren edizioa egingo da Gasteizen. Egun horretan, kanpainari atxikitako establezimenduek (tabernak, jatetxeak, Bizan, gizarte-etxeak...) Bidezko Merkataritzako kafea zerbitzatuko dute. Kafea % 100 arabiarra, kalitate bikainekoa da, eta justiziaren, berdintasunaren eta ingurumen-babesaren irizpideen arabera ekoizita dago. Zentzuz sareak doan hornituko du, Gasteizko Udalaren laguntzarekin.
 - o Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren aurreko astean, Bidezko Merkataritzako Estatuko koordinakundeak komunikazio-kanpaina bat abiaraziko du. Zentzuz sareak sare sozialetan eta webgunean jarriko ditu mezu horiek hedatzeko eta partekatzeko **materialak**.
- **Udalaren espazio publikoetako vending-makinetan zabalpena egitea.** Makina horien ondoan roll-up-ak jarriko dira, bidezko merkataritza



ikusarazteko eta horri buruzko informazioa emateko. Roll-upak lekuz aldatzen joango dira, makinak dauden espazio batetik beste batera.

- **Nerabe eta gazteekin lan egitea:**
 - **Bidezko merkataritzako maleta pedagogikoa:** ikastetxe bakoitzean hainbat aldiz erabili ahal izatea du helburu. Proposamena Cluedo motako pista-joko bat izan da, "Sabotaje" izenekoa. Lau taldetan banatuta, taldeek irakasleak edo hezitzaileak -game master gisa- gidatutako asmakizunak eta jolasak ebatzi beharko dituzte. Gidoi bat dago horretarako, eta urratsez urrats adieraziko da zer esan behar den, eta zer gertatu behar den. Jolasak audioak ere baditu, tarteka pisten artean.
 - Bidezko Merkataritzako Estatuko koordinakundeak, ilustratzaile ezagun batekin lankidetzan, Bidezko Merkataritzari buruz egindako **komiki** bat argitaratuko du. Gaztelaniaz eta euskaraz egongo da eskuragarri, eta ele bietan inprimatuko da, udal-liburutegietan eskuragarri egon dadin. Maleta pedagogikoan ere kopiak sartuko dira.
 - **Gazteria Zerbitzuarekin koordinatzea**, gazteen artean bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko.
 - **"Ikuspena denbora mugan" hall scape-aren saioak eskainiko dira Gasteiz Hiri Hezitzailea** programako ohiko epeetan (ikasturte hasieran). Escapelekuaren erabilgarritasunaren eta ikasle-taldearen aukeren arabera programatuko dira saioak
- **Ekonomia sozial eta solidarioko eta bidezko merkataritzako truke-gune, azoka eta sareetan parte hartzea:**
 - Bidezko merkataritzako produktuak saltzeko postu bat, **BioAraba Azokaren** ordutegian irekita. Zentzuz sarearen edukia solasaldi eta hitzaldien programazio paraleloan txertatuko da.
 - **Txokolate-dastaketa** egingo da. Jarduera honek herritarrengana modu dinamikoan iristeko aukera ematen dio Zentzuz sareari, bidezko merkataritza ezagutzera ematen baitu bost zentzumenak ba
 - **Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campuseko Azoka Agroekologikoan** parte hartuko dugu. Unibertsitateko irakasleek eta Gasteizen kontsumo arduratsuen aldeko apustua egiten



duten erakundeek sustatzen dute jarduera hau. Zentzuz Sareak bidezko merkataritzako produktuei buruzko informazio emateko eta horiek saltzeko gunea izango du. Hainbat irakasgaitako ikasleekin egiten dituzten bisita gidatuetan aukera ekonomiko horri buruzko azalpenak ematen ditu.

- Adinekoentzako **BIZAN** zentroek Gabonetako jai tradizionala antolatu ohi dute. Duela hiru urtetik hona, Zentzuz sareak, Oxfam Intermon-ekin batera, Bidezko Merkataritzako produktuen informazio- eta salmenta-postu bat jartzen du. Horretaz gain, bidezko merkataritzako produktuz osatutako bost saski oparitzen dira. Bestelako azoka eta merkatuetan ere, Zentzuzi buruzko informazioa emango da.

- **Bidezko Merkataritzaren aldeko Estatuko Hirien Sarean parte hartzea:**

- **Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien Sarean** parte hartzen jarraitzeko irizpideak eguneratzea.
- Bionekaritzarekin eta Bioalaiarekin batera, hiriko gizarte-etxeetako sukaldeetan bi lantegi egingo dira, "showcooking" formatuan. Bi ordukoak izango dira, gutxi gorabehera, eta herritar orentzat irekita daude.
- Zentzuz sareak **Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinatzaileak** urtean zehar proposatutako kanpainen berri ematen du: Bidezko merkataritzaren (BM) mugimenduko nazioarteko egun nagusiak, BMren Mundu Eguna, Gabonetako kanpainak, etab. Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundeak material grafikoak sortzen ditu, mezuak proposatzen ditu, prentsa-oharren, adierazpenen eta txostenen txantiloak eta zabalkunderako beste dokumentu batzuk prestatzen ditu.
- Zentzuz sareak **jarduera-katalogo** bat du, eta eguneratu egiten da baliabide gehiago izan ahala. Gaur egun bidezko merkataritzarekin eta kontsumo arduratsuekin lotutako 17 jarduera biltzen ditu katalogoak. Katalogo hori gizarte-etxeen sarera eta BIZAN zentroetara bidaltzen da, Zentzuzekin harremanetan jar daitezen jardueraren bat egiteko interesa izanez gero.



- **Balioen faktoria - Prestakuntza eraldatzailea:** iraupen eta intentsitate desberdineko topaketa, lantegi eta ikastaroak egitea, Gasteizko herritarren artean kontsumo arduratsua sustatzeko. Elkartasun-auzolandegiak barne hartzen ditu, zeinek hiriko gazteei aukera ematen baitiete SETEMen tokiko bazkideekin Latinoamerikara bidaiatu eta nazioarteko boluntario-esperientziak bizitzeko. Hitzarmenaren barruan egindako jarduerak sarea osatzen duten entitateen oniritzia izan beharko dute, eta horien inplikazioa sustatuko. Hitzarmen honen bidez, oraingoz gai hauek jorratu nahi dira, zehazki: **ekofeminismoa, ehungintza, elikadura, banku armatua, finantza etikoak, bidezko kontsumoa eta indarkeria matxisten presentzia kontsumoaren hainbat eremutan. Irailetik aurrera, banku armatuen eta finantza etikoen gaiak bakarrik landuko dira.**
- **Kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza balioztat dituzten tokiko saltoki txikiak sustatu eta ikusaraztea.**
 - o **MapaZentzuz**-en edukia etengabe eguneratzea eta webgunea mantentzea.
 - o MapaZentzuz mapari buruzko liburuxkak banatzea.
 - o Tokiko saltoki txikiei buruzko **emanaldiak** eskaintzea , euskaraz eta gaztelaniaz.
- **Erosketa publiko arduratsua sustatzea Gasteizko Udalean:**
 - o **Bilerak** Ogasuneko zuzendariarekin eta zinegotziarekin.
 - o **IDEIASen aholkularitza** baten bidez laguntza-eskaintzea, Gasteizko Udaleko zerbitzuetako kontratazio-agirietan bidezko merkataritzari buruzko klausulak txertatzeko.
 - o Gasteizko udalaren bidezko merkataritzako kafe-makinetan egiten den kontsumoari buruzko datuak dituen **infografia bat egitea eta zabaltzea** Gasteizko Udalaren salmenta-makinetan.
 - o **Udal zerbitzuen erosketa eta kontratazioetan bidezko merkataritzara bideratutako ekintzak bultzatzea:** webgunea eguneratzea eta barne-hedapena hobetzea; bidezko merkataritza erosteko potentziala duten zerbitzuei aholkularitza eta/edo laguntza pertsonalizatua ematea.



- **Informazioa eta komunikazioa:** komunikazio-materialak sortu eta zabaltzea. Aurreikusten da, besteak beste, kartelak sortzea eta jarduera puntualak sare sozialetarako egokitzea, kale-izendegiko saltokiak identifikatzeko eranskailuak eguneratu eta inprimatzea, Gasteizko Bidezko Merkataritzako Kafearen Egunerako zabalkunde-kanpaina, komunikabideetako publizitatea, eta abar.
- **Ekintzen eragina neurtzea.** NAIDERek 2020-2023 hitzarmenen ebaluazio-txostena egin zuen, eta 2024ko urtarrilean entregatu. Bertan jasotako gomendioei jarraituz, eta epe luzeko inpaktuaren neurketa errazte aldera, jarduera bakoitzean lortutako ezagutza-maila ebaluatu ahal izateko bitartekoak identifikatuko dira, baita epe luzerako kontsumo-ohituren aldaketa ere.

Ekintzen xehetasunak

Hitzarmenari dokumentazio hau erantsi zaio:

- **Aurreikusitako ekintza bakoitzaren deskribapen-fitxa.** Deskribapen-fitxa bakoitzean jarduerari buruzko informazio garrantzitsua jasotzen da, dela eduki, diseinu metodologiko, plangintza, estrategia eta inplikaturako beste eragile batzuei dagokienez, dela aurreikusitako kostuei dagokienez.
- **Hegoaldeko ikuspegia txertatzea:** fitxa horietako bakoitzak jasotzen du ekintzaren garapenean nola ikusarazten den zehazki herrialde pobretuetako biztanleriaren errealitatea eta kontsumitzeko dugun moduarekiko harremana.
- **Aurrekontuaren banakapena:** kalkulu-orria, ekintza bakoitzeko eta hirugarren klausulako taulan jasotako partidaren arabera gastua xehatzen duena.

BOSGARRENA: GASTEIZKO UDALAREN EKARPENA

Gasteizko Udalak **90.000,00 €** bideratuko ditu plan operatibo honetara, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren 2026erako aurrekontuko 2450.2391.48213 partidaren kargura, eta honako gastu-aurrekontu honen arabera:



Bidezko merkataritzako hitzarmena 2024-2027. Urteko plan operatiboa (2026). Aurrekontu banakatua, jardueraka

Jarduera	Kostua	Gasteizko Udala	GLEA	PARTZUER GOA
1. Balioen faktoria				
Materialak	300,00 €	300,00 €		
Prestakuntza-teknikaria	16.500,00 €	11.000,00 €	5.500,00 €	
Komunikazio-teknikariak	11.500,00 €	6.000,00 €	5.500,00 €	
Zabalkunde kanpaina	3.000,00 €	3.000,00 €		
Hizlari eta irakasleak kontratatzea	4.600,00 €	4.600,00 €		
Hizlarien eta irakasleen bidaiak	1.050,00 €	1.050,00 €		
Laguntza teknikoa kontratatzea	500,00 €	500,00 €		
Bisita agroekologikorako garraioa kontratatzea	550,00 €	550,00 €		
Balioen faktoriako boluntarioak: 4 pertsona. Bakoitzak 50 ordu inguru x 20 euro orduko*	4.000,00 €			4.000,00 €
Jardueraren guztizko partziala	42.000,00 €	27.000,00 €	11.000,00 €	4.000,00 €
2. Erosketa publiko arduratsua				
Zabalkunderako infografia (vending-makinak)	786,50 €	786,50 €		
Infografiak inprimatzea	500,00 €	500,00 €		
IDEAS aholkularitza	1.100,00 €	1.100,00 €		
Zentzuz sareko langileak (% 10)	4.580,00 €	4.580,00 €		
Jardueraren guztizko partziala	6.966,50 €	6.966,50 €		0,00 €
3. BIDEZKO MERKATARITZA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA				
3.1. Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatzea				
Kafea (50 kg). Kafearen eguna	1.700,00 €	1.200,00 €		
Kafearen eguneko mupiak	800,00 €	500,00 €		
Irrati-iragarkiak	500,00 €	500,00 €		
Kartelak egokitzea	629,20 €	556,00 €		
Inprimatze-lanak: kartel eta liburuxkak	800,00 €	800,00 €		
Kartelak banatzea	90,00 €	90,00 €		
Bidezko merkataritzako sariak, kafearen egunean parte hartzen dutenentzat (3 multzo)	180,00 €	180,00 €		
Bidezko merkataritzako produktuak aurkezpenean prentsakoekin gosaltzeko	25,00 €	25,00 €		
Influencerrak, zabalkundea	1.250,00 €	1.250,00 €		
Partzuergoko erakundeetako boluntarioak: 14 pertsona, bakoitzak 14 ordu guztira x 20 euro orduko.	2.940,00 €			2.940,00 €
Zentzuz sareko langileak (% 25)	11.450,00 €	11.450,00 €		
Jardueraren guztizko partziala	20.139,20 €	17.199,20 €		2.940,00 €
3.2. Tokiko saltoki txikiak				
Zentzuz webgunea				
Webgunea mantentzea	967,92 €	967,92 €		
Consumoresponsible.info webgunea, hornidura	120,00 €	120,00 €		



Konponketetarako bonuak	500,00 €	500,00 €		
Saltokiei Zentzuz buruzko informazioa emateko langileak kontratatzea	360,00 €	360,00 €		
Boluntarioak - liburuxkak banatzea eta eguneratzea	1.080,00 €			1.080,00 €
Kontsumo arduratsua sustatzea auzoetan				
Bakarrizketa sortzea	400,00 €	400,00 €		
3 bakarrizketa egitea	2.178,00 €	2.178,00 €		
Zentzuz sareko langileak (% 17)	7.786,00 €	7.786,00 €		
Jardueraren guztizko partziala	13.391,92 €	12.311,92 €		1.080,00 €

3.3. Azokak eta truke-espazioak				
Bioaraba				
Dastatzeak azoketan, bidezko merkataritza sustatzeko.	90,00 €	90,00 €		
Postua Bioaraban	770,00 €	770,00 €		
Bioaraban laguntzeko langileak	360,00 €	360,00 €		
Zabalkunderako irudi eta material apaingarriak inprimatzea	150,00 €	150,00 €		
Bioarabako boluntarioak (18 px - 2 ordu)	720,00 €			720,00 €
Nekazaritza ekologikoko azoka				
Azoka agroekologikorako mahaia alokatzea	8,80 €	8,80 €		
Produktuak dastatzea	10,00 €	10,00 €		
Saltokiko boluntarioak (2 px - 4 ordu)	160,00 €			160,00 €
Adinekoen jaia, Bizan				
Produktuak dastatzea	10,00 €	10,00 €		
Salmenta-postuko boluntarioak	60,00 €			60,00 €
Zentzuz sareko langileak (% 12)	5.496,00 €	5.496,00 €		
Jardueraren guztizko partziala	7.834,80 €	6.894,80 €		940,00 €

3.4. Nerabeekiko lana				
Hiri Hezitzailea				
Nerabeentzako 6 hall scape saio Eskapelekun (240 € saio bakoitzeko)	1.440,00 €	1.440,00 €		
Maleta pedagogikoa				
Jokoko materialak ordeztzea	100,00 €	100,00 €		
BMEKren komikiaren pegatina inprimatzea	100,00 €	100,00 €		
Erdaldagune Jokoa (Trivial online) ren gidoiaren itzulpena	200,00 €	200,00 €		
Azalaren diseinua	200,00 €	200,00 €		
Youform plataformako edukien diseinua	289,58 €	289,58 €		
Gazteentzako komunikazio-ekintza				
Kanpainaren diseinuko materialak	200,00 €	200,00 €		
Zentzuz sareko langileak (% 13)	5.954,00 €	5.954,00 €		
Jardueraren guztizko partziala	8.283,58 €	8.283,58 €		0,00 €
4, Sareak				



Elikadura-burujabetza				
Sukaldaritza erakustaldi dinamizatzea	350,00 €	350,00 €		
Kartela egokitzea	60,00 €	60,00 €		
BMEK				
BMEKren kanpainetako materialak ematea	400,00 €	400,00 €		
Zentzuz sareko langileak (% 23)	10.534,00 €	10.534,00 €		
Jardueraren guztizko partziala	11.344,00 €	11.344,00 €		0,00 €
GUZTIRA	109.960,00 €	90.000,00 €	11.000,00 €	8.960,00 €

SEIGARRENA: GASTEIZKO UDALAREN DIRU-ORDAINKETA

Gasteizko Udalak ordainketa bakarrean abonatu du urteko hitzarmen honi dagokion ekarpena, alde guztiek sinatu ondoren.

Ordainketa hori **Medicus Mundi Álava/Arabak** entitateari egingo zaio, hori izendatu baitute sarearen ordezkari hitzarmen honen indarraldirako.

Ordaindu aurretik, Medicus Mundi Álava/Arabak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar ditu, edo Gasteizko Udalari baimena emango dio Foru Ogasunean, Gasteizko Udalean eta Gizarte Segurantzarekiko dituen zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

ZAZPIGARRENA: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK, UDAL ESPAZIOAK LAGATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASETAN

Entitateak eskubidea izango du salbuespenak eta hobariak izateko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, kulturako, kongresuetako edo funtzio anitzeko esparruak erabiltzeagatik eta/edo udal gizarte-etxeak edo udal-titulartasuneko beste edozein establezimendu erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasetan, betiere, baldin eta lagapena hitzarmen honetan adostutako helburuen edo jarduerak gauzatzeko bada,



betiere dagozkien ordenantza fiskaletan ezarritako salbuespen eta hobarien araubidearekin bat.

Gutxienez 15 egun lehenago eskatu beharko da lagapena.

ZORTZIGARRENA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Protokoloaren hamaikagarren klausulan ezarritakoa betez, honako irizpide hauek ezarri dira hitzarmenaren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez:

- Jarraipen-batzorde bat eratuko da, hitzarmen honen garapen orokorra gainbegiratu dezan. Batzorde hori Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko teknikari batek edo hitzarmena sinatzen duten entitateetako ordezkariak osatuko dute.
- Batzordeak programa onik garatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak oro proposatu ahalko ditu.
- Batzordeak 2025eko urteko hitzarmenean aurreikusitako ekintzak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen adina bilera egingo ditu, eta horien akta laburtuak egin beharko ditu.
- Batzordeak programa onik garatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak oro proposatu ahalko ditu.
- Urteko hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren garapenean aldaketa garrantzitsuren bat planteatzen bada, batzorde honen baitan adostu beharko da.

BEDERATZIGARRENA: BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Aurreikusitako jardueraren bat egitean diru-sarrerarik sortzen bada sarrerak kobratzeagatik edo antzekoengatik, diru-sarrera hori hitzarmena bera ezartzeko erabiliko da, jarraipen-batzordean aldeztu aurretik adostuta.

HAMARGARRENA: JASOTAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek justifikatu egin beharko dituzte horiek, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren VI. kapituluko ("Dirulaguntzak



justifikatzea”) 33. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bertan adierazten diren epeetan.

Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoan justifikazioa. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

Justifikatzeko sistema. Dirulaguntzaren onuradun diren pertsonak edo entitateek egindako gastua justifikatzeko kontu arrunta aurkeztu beharko dute, ondoren adierazitakoari jarraituz.

Justifikatzeko kontua aurkeztuz justifikatu beharko dute jasotako zenbatekoa entitate onuradunek, hiru hilabeteko epean, urteko hitzarmena amaitzen denetik kontatuta.

Txosten narratiboak eta justifikazio-memoriak euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta dirulaguntza jasotzen duen entitatearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko dute. Zati narratiboa testu-prozesadorearen formatuan aurkeztu beharko da, eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan. Gainerako dokumentazioa edo materiala maneiatu, berrikusi eta editatzeko aukera ematen duen formatu digitalean aurkeztu beharko da, zer den ere —irudiak, bideoak, grabazioak, planoak...—. Digitalizatzea ezinezkoa bada, euskarri egokian aurkeztu beharko dira.

Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- a) Hitzarmen honi jarraituz egindako jardueren azalpen-memoria.
- b) Jardueren kostua justifikatzen duen oroitidazki ekonomikoa, justifikazio-kontu arruntari jarraiki osatua, Udalaren webgunean eskuragarri dauden ereduen arabera —www.vitoria-gasteiz.org/lankidetza—. Honako hauek jasoko dira bertan:
 - **Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoan justifikazioa.** Proiektua edo jarduera hainbat entitate publikok edo pribatuk finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da eranskin hau. Azken kasu horretan, ez dago horien ordainketa justifikatzen duten agiriak aurkezteko beharrik (nominak, fakturak eta abar).



- **Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.** Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira, bertan adierazten den moduan: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Jatorrizko fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio.

Eskudirutan ordaintzekotan, lege ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da; webgune honetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira hartu-agiriak. Edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Hartu-agirian datu hauek agertu behar dira:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
 - Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
 - PFEZaren atxikipena; dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da.
 - Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.
- **Proiektuaren /jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.**
 - **Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.**
Eranskin hau beteko da diruz lagundutako proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (gaur egungo RNT eta RLC agiriak, gaztelaniazko *Relación Nominal de Trabajadores* eta *Relación de Liquidación de Cotizaciones*, hurrenez hurren) erantsita. Agiri horiek enpresek beren langileengatik Gizarte Segurantzari ordaindu behar dizkieten kuotei buruzko informazioa jasotzen dute.
 - **Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.**
Likidazioa osatu beharko da bidaia-, dieta-, garraio- eta mantenu-gastuak eta antzekoak justifikatzeko.



Gastuei dagozkien merkataritza-agiriak (garraio-txartelak, tiketak, fakturak...) erantsi beharko zaizkio likidazioari, horiek izango baitira zenbatekoa zehazteko oinarri.

Emandako dirulaguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu, harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzuli behar delako ebazpen baten ondorioz zordun bada ere.

HAMAIKAGARRENA: URTEKO HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31era arte egongo da indarrean.

HAMABIGARRENA: BESTELAKO BETEBEHARRAK

Ordezko izaerarekin eta hitzarmen honetan aurreikusten ez denari dagokionez, toki-korporazioei aplikatu beharreko indarreko araudian eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantzan xedatutakoaren mende egongo dira aldeak, eta, besteak beste, erregelamendu-xedapen horren 12. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

HAMAHIRUGARRENA: DATU PERTSONALEN BABESA

Entitate onuradunak adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

Entitateak bere gain hartzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin lotutako xedapenak betetzeko konpromisoa —Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu horrek, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra)



indargabetzen—, baita Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta une bakoitzean aplikatzekoa den datuen babesaren arloko gainerako araudia ere; orobat, konpromisoa hartzen du xedapen horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko hitzarmen honen barruan pertsona fisikoengandik lortu eta erabilitako datuei dagokienez.

Elkarteak konpromisoa hartzen du datu horiek ez lagatzeko.

HAMALAU GARRENA: UDAL FINANTZAKETAREN PUBLIZITATEA DIRUZ LAGUNDUTAKO INTERES PUBLIKOKO JARDUERAN

Entitate onuradunek konpromisoa hartzen dute Gasteizko Udalaren laguntza jaso duela adierazteko, argi eta garbi, publizitaterako baliatzen dituen euskarri edo plataforma guztietan.

Era berean, udal finantzaketaren berri eman beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten material inprimatuetan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektronikoko eta ikus-entzunezkoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsi beharko du, testu honekin: "Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra".

Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan.

HAMABOS GARRENA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA

Dirulaguntzaren onuraduna den erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa bete beharko du; Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3., 16., 18.4 eta 23. artikuluetan ezarritako printzipioetara egokitu beharko du bere jarduera, eta konpromisoa hartu beharko du neurriak ezartzeko genero-ikuspegia txertatzeko, batez ere, hizkera ez-sexista erabiltzea eta datuak sexuaren arabera bereizita biltzea eta aurkeztea.



HAMASEIGARRENA: GARDENTASUN-BETEBEHARRAK

Honako lege-arauetan ezarritako gardentasunaren eta publizitate aktiboaren betebeharrak bete beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2005 Legea; Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3. eta 8.c artikulua; Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 49. artikulua.

HAMAZAZPIGARRENA: HITZARMENA ALDATZEA

Hitzarmena aldatzea baimendu ahal izango da, hitzarmenean aurreikusi gabeko jarduerak egin ahal izateko, baldin eta, hitzarmenaren xedearekin lotuta egonik, hitzarmenaren xedea eta helburuak funtsean aldatzen ez badituzte.

Aldaketa-proposamenak hitzarmeneko aurrekontu osoaren ehuneko 10etik gorako aldaketa badakar partiden edo jardueren artean, aldatzeko erabakia Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du, alde interesdunak alde aurretik eskatuta. Nolanahi ere, hitzarmenaren indarraldia bukatu aurretik egin beharko da eskabidea.

HAMAZORTZIGARRENA: SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoi izango dira honako hauek: akordioaren klausulak ez betetzea, eta haren izaerarekin lotuta indarrean dagoen legeriak — bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua— jasotzen duen beste edozein ez betetzea.

HEMERETZIGARRENA: APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Hitzarmen hau aplikatu daitezkeen administrazio-zuzenbideko arauen mende egongo da, baita honako hauen mende ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean hitzarmenei buruz ezarritakoa.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas



Eta, adierazitako guztiarekiko adostasun eta oniritziaren erakusgarri, hitzarmen hau izenpetu dute aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Ana Rosa López de Uralde

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako
Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkaria

Iratxe Arteagoitia Recalde

SETEM Hego Haizea

Eduardo María García Langarica

Arabako Medicus Mundi

Francisco Izquierdo de la Guerra

Elizbarrutietako Misoak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas



CONVENIO ANUAL PARA EL FOMENTO DEL COMERCIO JUSTO Y EL CONSUMO RESPONSABLE EN VITORIA-GASTEIZ, CORRESPONDIENTE AL AÑO 2026

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2026

Conforme a lo estipulado en el Protocolo General de Actuación suscrito entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Red Zentzuz integrada por: SETEM Hego Haizea, Medicus Mundi Álava/Araba, y Misiones Diocesanas Vascas (Bide Bidean) para el fomento del Comercio Justo y el Consumo Responsable en Vitoria-Gasteiz, suscrito con fecha 9 de febrero de 2024 y con vigencia hasta el 31 de diciembre de 2027 y en aplicación de las cláusulas sexta y séptima del citado protocolo, todas las partes acuerdan el siguiente convenio anual para el año 2026, aprobado en Junta de Gobierno Local ordinaria de fecha de 5 de junio de 2026.

CLAÚSULAS

PRIMERA: PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES

El presente convenio de subvención nominativa se encuentra recogido en el vigente Plan Estratégico de Subvenciones (2025-2027).

El objetivo que se pretende conseguir a través del mismo es: "Apoyo a actividades de difusión del comercio justo y del consumo responsable, de fortalecimiento de las ONGD y a la acogida temporal de niños y niñas saharauis".

SEGUNDA: OBJETO DEL CONVENIO

El objeto del presente convenio es desarrollar una serie de acciones destinadas a fomentar el Comercio Justo y el Consumo Responsable en Vitoria-Gasteiz, desde un enfoque internacional/global, centrado especialmente en el respeto de los derechos humanos y laborales en la producción y comercialización de bienes y servicios, en los impactos sociales y ambientales del sistema económico globalizado de producción en los países del Sur, y la sostenibilidad del planeta.



TERCERA: REPRESENTANTE DE LA RED

Tal y como se establece en el protocolo general de actuación en su cláusula décima, sobre la responsabilidad de las acciones, este convenio anual establece que Medicus Mundi Álava/Araba ejercerá las funciones de cabeza de la red Zentzuz en el año 2026 y, por ende, ostentará la representación de la misma ante el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Se adjunta a este convenio como parte vinculante el protocolo general de actuación entre las organizaciones que conforman la red Zentzuz y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

CUARTA: ACCIONES A DESARROLLAR

En el marco del presente convenio se realizarán las siguientes acciones:

En el ámbito de la promoción del comercio justo y consumo responsable entre la ciudadanía:

